

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

3825

EBAZPENA, 2026ko abuztuaren 28koa, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendariarena, zeinaren bidez tokiko bizikidetzaren esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2026rako deialdia egiten baita.

Ekainaren 16ko 99/2026 Dekretuaren bidez, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen da, hau da, bakea, giza eskubideak, indarkeriarik eza eta printzipio demokratikoak sustatzeko errefortzu osagarriko ekimena. Programaren helburu nagusia bizikidetzaren eta adiskidetzaren kultura sendotzea da, elkarte-sarearen eta erakunde publikoen arteko lankidetzak-ekintzak biderkatuz.

Programa horren bidez, dirulaguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

Horren haritik, hiru laguntza-ildo biltzen dira dekretu horren 6. artikuluan, eta udaletan garatzen diren proiektuak finantzatzeko da horietako bat.

2026ko ekitaldirako funts bakarra sortu da, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak egindako ekarpenekin bakarrik eratu dena.

Programa honetarako, aurrekontu-kreditu nahikoa dago Euskal Autonomia Erkidegoaren 2026rako Aurrekontu Orokorretan.

Bestalde, aipatu behar da Elkarrekin Bonuak Programa Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotako ekimenetako bat dela. Plan hori sailburuaren 2025eko otsailaren 5eko Aginduaren bidez onartu zen, eta Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2026ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez eguneratu zen:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planestrategicosubv_1718/eu_indice/adjuntos/PES-2026E_firma.pdf

Aipatutako dekretuaren 7. artikulua ezartzen duenez, laguntza horien deialdia urtero egingo da, giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendariaren ebazpen baten bidez. Ebazpen horretan, honako hauek zehaztuko dira: deialdiaren xedea, dirulaguntza-lerro bakoitzari dago-kion aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa, bonuen zenbatekoa, jardueren erakunde hartzaileek ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa eta diruz lagundu daitekeen gehieneko muga, dirulaguntza-lerro guztietan lortutako zenbatekoak kontuan hartuta. Era berean, eskabideak aurkezteko lekua, modua eta epea, kudeatzeko eta ebazteko organo eskudunak eta dirulaguntza justifikatzeko lekua, modua eta epea zehaztuko dira.

Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen azken xedapenetako lehenaren bigarren paragrafoan jasotakoarekin bat etorritik (2023ko abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zk.) deialdi hau lege horretan xedatutakoari lotuta dago.

Hori dela eta, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Elkarrekin Bonuen Programaren 2026. urterako deialdia egitea, tokiko bizikidetzaren esparruan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ematen diren datu pertsonalak bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko laguntzak eta dirulaguntzak izeneko tratamendu-jarduerari erantsiko zaizkio.

– Arduraduna: Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren Zuzendaritza, Justizia eta Giza Eskubideen Saila.

– Helburua: Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen arloko laguntzak kudeatzea.

– Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak: ez da daturik lagatzen.

– Eskubideak: eskatzaileak eskubidea du datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezeztzeko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/144400-cap2-eu.shtml

Araudia:

– Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra:

(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak bermatzekoa:

(www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22. artikulua 5. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, laguntzak edo dirulaguntzak emateko prozedura edozein dela ere, hartarako ezarritako gehieneko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzeak legitimatzen ditu interesdunak dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertzeko. Isiltasunak ez du administrazioa salbuesten dagokion prozedura esanbidez ebaztetik, eta isiltasunaren aurreko legitimazioa gertatzen da administrazio-errekurtsua jarri ahal izateko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak honako hauei lotuta daude: 99/2026 Dekretua, ekainaren 16koa, Elkarrekin Bonuak Programa arautzen duena; 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan bildutako erregulazioa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren sail-buruordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 28a.

Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendaria,
AINHOA ZUGASTI BILBAO.

ERANSKINA

ELKARREKIN BONUAK TOKIKO BIZIKIDETZAREN ESPARRUAN PROGRAMAREN DEIALDIA

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Elkarrekin Bonuak Programaren 2026ko deialdia egitea, tokiko bizikidetzaren esparruan.

2. artikulua.– Denbora-eremua.

Bonuak eskatzeko arrazoi diren proiektuak 2026ko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 1era bitartean garatu ahal izango dira.

3. artikulua.– Diru-zuzkidura.

Dirulaguntzen programa honetara 150.000 euro bideratu dira, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak egindako ekarpenak osatzen du funts hori, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 2026ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko da.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak eta erakunde hartzaileak.

1.– Elkarrekin Bonu Programaren onuradun izango dira gizarte-ekimeneko entitateak, baldin eta, eskabideak aurkezteko epea amaitzean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan adierazitakoaz gain, Elkarrekin Bonuak Programa arautzen duen ekainaren 16ko 99/2026 Dekretuaren 2.2 eta 3. artikuluetan ezarritakoa betetzen badute.

2.– Erakunde onuradunek bermatuko dute Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikuluan ezarritakoa betetzen dela. Horren arabera, adingabeekin ohiko harremana duten langile guztiek, kontratatuek zein boluntarioek, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa izango dute. Era berean, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan xedatutakoaren arabera, entitate onuradunek bermatu beharko dute ez dutela LGTBIfobiarik egiten, bultzatzen edo sustatzen, bihurteta-terapiak sustatzea edo egitea barne.

3.– Tokiko bizikidetzaren arloko proiektuen hartzaileak toki-erakundeak izango dira.

4.– Toki-erakundetzat hartuko da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2. artikuluan xedatutakoa.

5. artikulua.– Bonuen zenbatekoa eta gehieneko muga.

1.– Tokiko bizikidetzaren esparruko bonuak 90 eurokoak izango dira, justifikatutako prestakuntza- edo dinamizatze-zerbitzuen ordu bakoitzeko.

2.– Proiektuen erakunde hartzaileek, gutxienez, eman zaizkien bonuen % 10 ordaindu beharko diote erakunde onuradunari.

3.– Bonuak direla eta, erakunde hartzaileek honako zenbateko hauek metatu ahal izango dituzte, gehienez, toki-erakunde berean:

– 5.000 euro, 15.000 biztanletik beherako toki-erakundeeetan.

– 12.500 euro, 15.000 eta 40.000 biztanle arteko toki-erakundeetan.

– 20.000 euro, 40.000 biztanletik gorako toki-erakundeetan.

4.– Laguntza hauen erakunde onuradunek ezin izango dute guztira 30.000 eurotik gorako zenbatekorik metatu Elkarrekin Bonuak Programa arautzen duen ekainaren 16ko 99/2026 Dekretuan araututako dirulaguntza lerro guztietan lortutako kopuruak batuta.

5.– Ez da bonurik esleituko prestakuntzarako edo joan-etorrietarako.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Prozedura honetan jasotako izapideak baliabide elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte erakunde interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluaaren arabera.

2.– Eskabideak, erantzukizuneko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1024312>

Eskabidearen ondorengo izapideak, bide elektronikoz, jakinarazpenak eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Ordezkaritza baten bidez ere izapidetu ahal izango da elektronikoki, eta, horretarako, ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordetzeen Erregistro elektronikoa eman ahal izango du izena, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaririk>

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikazio eta sinadura elektronikorako onartutako bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori hasierako eguneko 08:00etan irekiko da, eta epearen azken eguneko 23:59an amaituko.

Deialdi honetan emango diren laguntzen guztizko bolumenak ezin izango du gainditu funts horretan egindako zuzkiduren zenbatekoa. Beraz, zenbateko hori agortu ondoren, ez da laguntza berririk emango, eta horrela egiten direnak ukatu egingo dira.

8. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidea, erantzukizunpeko adierazpenak barne, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen inprimakian beteko da, ebazpen honen 6.2 artikuluan adierazitako irispidearen bidez.

2.– Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dauden eredu normalizatuak erabiliz:

a) Erakunde onuradunaren eta erakunde hartzailearen artean sinatutako akordioa, jarduera garatzeko, edo erakunde hartzaileak aurkeztutako jarduerari dagokionez hartutako konpromiso ekonomikoa egiaztatzen duen dokumentua (I. eranskina).

b) Jardueraren memoria zehatza (II. eranskina).

c) Erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina).

9. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza horiek Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako Zuzendaritzak kudeatuko ditu, eta Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren sailburuordeak ebatziko ditu.

2.– Kreditu erabilgarria agortzen bada, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Giza Eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzako titularren ebazpen baten bidez.

10. artikulua.– Ebazpenak ebaztea eta jakinaraztea.

1.– Eskaerak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskaera izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, dirulaguntzaren eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe Administrazioak ebazpen espresua emateko duen betebeharra.

2.– Prozeduraren ebazpena berariaz eta banan-banan jakinaraziko zaie erakunde interesdunei.

3.– Dekretu arautzailearen 15.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, urtero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da xedapen honen babesean emandako dirulaguntzak jasoko dituzten erakundeen zerrenda, Giza Eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularren ebazpenaren bidez, eta jasotako zenbatekoak adieraziko dira.

11. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua.

1.– Dirulaguntzaren justifikazioa gehienez hilabeteko epean aurkeztu beharko da, jarduera gauzatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta betiere 2027ko irailaren 1 baino lehen.

2.– Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragarri dauden eredu normalizatuak erabiliz:

a) Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko konpromisoa (IV. eranskina).

b) Egindako jardueraren memoria zehatza (V. eranskina).

c) Jarduera bakoitza egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa, hala nola: programen aleak, iragarki-kartelak, argazkiak eta argitaratutako gainerako material grafikoa, idatzizkoa edo soinuduna.

3.– Justifikazioak bitarteko elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan, honako helbidean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

12. artikulua.– Erakunde eskatzaileen betekizunak egiaztatzea.

1.– Eskabidea aurkeztean, entitate eskatzaileak baimena ematen dio organo kudeatzaileari egiaztatzeko, elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura

ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

Aurka eginez gero, erakunde interesdunak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatuko da dirulaguntza emateko proposamena egin aurretik.

2.– Organo kudeatzaileak egiaztatuko du erakunde onuradunak ez duela eskatu borondatezko konkurtsoaren deklaraziorik, ez dela kaudimengabetzat jo ezein prozeduratan, ez dagoela konkurtsoan deklaratura, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, ez dagoela esku-hartze judizialaren mende eta ez dagoela desgaituta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

3.– Organo kudeatzaileak egiaztatuko du erakunde onuradunak ez duela urratu Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan ezarritako betebeharra, hau da, berdintasun-plan bat indarrean izatea 50 langile edo gehiagoko enpresentzat, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak betebehara hori ezartzen duenean edo lan-agintaritzak zehapen-prozedura batean erabaki duenean zehapen erantsien ordezkari plan hori egitea eta aplikatzea.

4.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluko betekizunak eskabide-ereduan jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko dira.

Erantzukizunpeko adierazpen bati erantsten zaion datu, adierazpen edo dokumentazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, ezin izango da prozeduran jarraitu egitate horien berri izaten den unetik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. Gainera, egoera hori adierazten duen Administrazio Publikoaren ebazpenak, hala badagokio, dirulaguntza itzultzeko betebeharra ezarri ahal izango dio interesdunari.

I. ERANSKINA

JARDUERA GARATZEKO HASIERAKO KONPROMISOA

_____ jaunak/andreak,
_____ entitatearen ordezkari gisa,
eta _____ jaunak/andreak,
_____ entitatearen ordezkari gisa,
adierazten dute _____ izeneko jarduera egiteko
borondatea dutela, eta jarduera horrek _____ orduko iraupena izango duela.

Jarduera-mota: _____

Jarduera zein hizkuntzatan egingo den: _____

Jarduera zein lekutan egingo den: _____

Zein den jarduera egiteko ordutegia: _____

Jarduera zein datatan gauzatuko den, gutxi gorabehera: _____

Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta/edo generoaren arabera bereizita: _____

Entitate hartzaileak konpromisoa hartzen du _____ euro jartzeko, deialdiaren ebazpenaren 5. artikuluan ezarritakoa betez (emandako bonuen % 10eko gutxieneko ekarpena).

_____ (e) n, _____ (e) ko _____ aren _____ (e) (a) n

(Entitate onuradunaren titularren edo
ordezkariaren sinadura)

(Entitate hartzailearen titularren edo
ordezkariaren sinadura)

II. ERANSKINA

JARDUERAREN MEMORIA

Erakunde onuradunaren datuak (erakunde eskatzailea)

Izena: _____

Harremanetarako pertsona: _____

Helbide elektronikoa: _____

Telefonoa: _____

Erakunde hartzailearen datuak

Izena: _____

Harremanetarako pertsona: _____

Helbide elektronikoa: _____

Telefonoa: _____

Jardueraren datuak

Izena: _____

Jarduera-mota ☐ Formakuntza ☐ Dinamizazioa

Jarduera zein hizkuntzatan egingo den ☐ Euskara ☐ Gaztelania

Jarduera zein lekutan egingo den ☐ Ikastetxea ☐ Gizarte etxea

☐ Udalerriko plaza ☐ Entitatearen lokala

☐ Beste batzuk – zehaztu _____

Jarduera egiteko ordutegia ☐ Goizez ☐ Arratsaldez

☐ Goizez eta/edo arratsaldez, eskola-orduetan

☐ Goizez eta/edo arratsaldez, eskola-orduetatik kanpo

☐ Beste batzuk – zehaztu _____

Jardueraren kolektibo hartzaile mota

- ☐ Ikastetxeko ikasleak ☐ IGEko langileak
- ☐ Irakasleak ☐ Herritarrak
- ☐ Aisialdiko taldeetako parte-hartzaileak ☐ Proiektu espezifikoetako parte-hartzaileak
- ☐ Beste batzuk – zehaztu _____

Programaren hartzaile izan daitezkeen pertsonen kopurua (sexuaren eta/edo generoaren arabera bereizita):

Emakumeak: _____ Gizonak: _____ Pertsona ez-bitarrak: _____

Eskatutako ordu/bonu kopurua: _____

Aurrekontua:

- Elkarrekin Bonuak Programari eskatutako dirulaguntza: _____
- Entitate hartzaileak ordainduko duen zenbatekoa _____

Jardueraren deskribapena

Egin beharreko jardueraren deskribapena:

Lan-proposamenaren helburu orokorrak eta espezifikoak:

Egin beharreko prestakuntza- eta dinamizazio-saioen/orduen xehetasuna*:

Emate- orduak	Emandako jardueraren deskribapena	Oharrak

* Adibide gisa: jarduera guztira 15 ordukoa bada, azaldu 15 ordu horietako bakoitza zer ekintza/jardueratara bideratzen den.

Jarduera-egutegia/jardueren kronograma (gutxi gorabeherako datekin, itxita ez badago):

Ebaluazioa: (prozedura, irizpideak, biztanleria hartzailearengan duen eraginaren ebaluazioa egiteko erabili beharreko adierazleak, proposatutako helburuen lorpenaren ebaluazioa, parte-hartzaileen gogobetetasuna, hobetzeko proposamenen detekzioa...).

Genero-ikuspegia nola txertatu nahi den:

Giza baliabideak

1. parte-hartzailea:

Izen-abizenak	
Prestakuntza akademikoa	
Esperientzia	
Parte-hartze maila	
Berdintasunari buruzko prestakuntza	
Erakundearekiko lotura (boluntariotza, praktikak, kontratazioa)	

2. parte-hartzailea:

Izen-abizenak	
Prestakuntza akademikoa	
Esperientzia	
Parte-hartze maila	
Berdintasunari buruzko prestakuntza	
Erakundearekiko lotura (boluntariotza, praktikak, kontratazioa)	

Baliabide materialak

(Entitate onuradunaren titularraren edo
ordezkariaren sinadura)

(Entitate hartzailearen titularraren edo
ordezkariaren sinadura)

III. ERANSKINA
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Entitate eskatzaileak honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

- a) Dekretu honen 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela.
- b) Ez dagoela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako entitate onuradun izateko debekurik, aplikatzekoak diren heinean.
- c) Konpromisoa hartzen duela jarduera bererako beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuetatik beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu eta, hala badagokio, jaso dituela jakinarazteko.
- d) Diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketarik ez dagoela, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- e) Konpromisoa hartzen duela baldintzak betetzen jarraitzeko dirulaguntza emateko prozeduran eta, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera gauzatzen den bitartean.

_____ (e) n, _____ (e) ko _____ ren _____ (e) (a) n

(Entitate onuradunaren titularren edo
ordezkariaren sinadura)

IV. ERANSKINA
JARDUERA GARATZEKO AZKEN KONPROMISOA

_____ jauna/andrea,
_____ entitatearen ordezkari gisa, honako hau

Ziurtatzen du:

_____ entitateak _____ jarduera garatu
du, eta guztira _____ lagunek parte hartu dute; horietatik _____ emakumeak izan dira,
_____ gizonak eta _____ pertsona ez-bitarrak.

Jarduera zein lekutan egin den: _____

Jarduera zein hizkuntzatan egin den: _____

Jarduerak, guztira, _____ ordu iraun du.

Jardueraren datak eta ordutegia (bete taula hau):

Data	Ordutegia	Ordu guztiak

Entitate hartzaileak _____ euro jarri ditu, deialdiaren ebazpenaren 5. artikuluan ezarritakoa
betez (emandako bonuen % 10eko gutxieneko ekarpena).

_____ (e) n, _____ (e) ko _____ aren _____ (e) (a) n

(Entitate hartzailearen titularren edo ordezkariaren sinadura)

V. ERANSKINA
JARDUERA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA

Jardueraren datuak

Jardueraren izena: _____

Entitate onuraduna: _____

Entitate hartzailea: _____

Programaren hartzaile kopurua (sexuaren eta/edo generoaren arabera bereizita):

Emakumeak: _____ Gizonak: _____ Pertsona ez-bitarrak: _____

Elkarrekin Bonuak Programak adjudikatutako dirulaguntza: _____

Erakunde hartzaileak ordaindutako zenbatekoa: _____

Gauzatutako ordu/bonu kopurua: _____

Jardueraren deskribapena

Egindako jardueren laburpena:

Egindako jardueren kronograma:

Genero-ikuspegia nola txertatu den:

Gauzatzeko erabilitako baliabide materialak:

Gauzatzeko erabilitako giza baliabideak:

Azken balorazioa:

Eragina hartzaileengan:

Ebaluazio-irizpideak (hartzaileengan duen eraginaren ebaluazioa/proposatutako helburuen lorpenaren ebaluazioa/parte-hartzaileen gogobetetasuna/hobetzeko proposamenen detekzioa).

Helburuen betetze-maila:

Egindako jarduera hobetzeko proposamenak:

Garatutako ekintza gauzatzeko erabilitako materiala:

- ☐ Programak ☐ Iragarki-kartelak ☐ Argazkiak
☐ Material grafikoa, idatzia, soinuduna ☐ Parte-hartzaileen zerrenda ☐ Beste batzuk

(Entitate onuradunaren titularraren edo
ordezkariaren sinadura)

(Entitate hartzailearen titularraren edo
ordezkariaren sinadura)